

2014ko ekaina

Haur jolasak

Parkean neska talde bat eseri da nire alboan. Hamabost edo hamasei urte izango dituzte gutxi gorabehera. Oso altu hitz egiten dute eta behin eta berriro ari dira barre algaraka. Normala, adin horretan. Baina hain normala iruditu ez zaidana eta atentzioa eman didana izan da euren keinu eta hitzetan antzematen den agresibitatea. Bata bestea irainduz komunikatzen dira.

Horrela iruditzen zait niri behintzat, baina, ikusten ari naizenez, haiei normala iruditzen zaie. Elkarri horrela hitz egiten ohituta daude, antza. Euren artean erlazionatzeko beste modurik ez dutela ezagutzen ematen du.

Mutil talde bat agertu da eta neskak agurtu dituzte modu lotsagabe eta iraintzaile batean. Baina neskak ez dira irainduta sentitu, hala ematen du, mutilek esandakoari barreka erantzun baitiote. Neska batek, mutilen jokoa jarraituz, irain gogor bat bota dio mutil bati eta, orduan, mutila neskaren gainera abiatu da eta bi eskuekin haren lepoa estutzen hasi da, bromatan, talde guztiak barre egiten duen bitartean.

Askatu denean, neskak, pasatu duen estutasuna disimulatu nahian, berriz iraindu du mutila hitz gogorrekin, eta poliki-poliki, isilduz joan dira denak. Litxarrerria jateko ordua heldu da: barbakoa zaporeko gusanitoak, urdaiazpiko zaporeko artaleak, txokolatezko palmerak, erregalizak, Coca Cola latak, gominolak... Antsietatez jaten dute. Elkarri hitz egiten dioten bezala.

Euren gurasoak imajinatu ditut une batean. Euren aita-amekin horrelako jarrera izango ote duten pentsatu dut, harropuzkeria horrekin erantzungo ote dioten haiek esaten duten guztiari.

Eta eguneroko albisteak irakurriko ez banitu, agian gehiegizkoa irudituko litzaidake pentsatzea gure artean euren amei tratu txarrak ematen dizkieten gero eta seme gehiago daudela. Seme harroputz eta bortitzak, neska baten lepoa estutzea jolas dibertigarritzat dutenak.

Karmele Jaio
Deia
(Moldatua)

Idea nagusiak eta bigarren mailakoak (eskema moldean, zenbaki gabe)

- Parkean, neska talde bat ozenki hizketan: adinagatik, agian
 - Neskek komunikatzeko era oldarkorra: ohituragatik, agian
- Mutil talde bat hurbildu eta horiek portaera lotsagabea, irainka
 - Neska eta mutil baten artean, sesioa
 - Amaieran, mutilak lepoa estutu neskari, erdi txantxatan
- Harreman agresiboaren ondoren, litxarreriak antsiaz jaten denak
- Agian, gazte horiek harreman oldarkorra gurasoekin ere
 - Agian, horregatik albisteetan seme askoren bortizkeria amarekin
- Egoera: mutil batzuen ustean, neskei lepoa estutzea, jolasa

Laburpena

Parkean, neska talde bat algaraka eta hizketan ozen ari da, baita komunikatzeko era oldarkorrean ere; normala agian, duten adinagatik, edota ohituragatik.

Mutil talde bat hurbildu da, jokaera lotsagabean horiek ere, irainka neskei. Neskek berdin, baina horietako baten eta mutil baten artean sesioa gertatu da; eta azkenean mutilak neskari lepoa estutu dio, txantxatan-edo. Baina giroa baretu eta litxarreriak jateari ekin diote.

Agian, gazteok antzeko jokabidea izango dute gurasoekin ere, eta horregatik normala tratu txarren albisteak izatea, semeenak amen kontra. Izan ere, mutil batzuen ustez, neskei lepoa estutzea jolasa baino ez da.